

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren merkatu segmentazioari dagokionez, gurpildun aukia duten pertsonak dira gure xede publikoa. Enpresaren helburu nagusia, gurpildun aukiei motorra egokitzea da. Baina ez gara egokitzapenean bakarrik murgilduko pauso bat haratago eman dezakegula iruditu baitzaigu. Enpresaren moduan, gure alde enpatikoa jomuga bezala ezarriz hasi ginen proiektua; orduan topatu ginen behar honekin. Modu honetan, elbarrien kasuak ezagutuz, ohartu gara autonomia lortzea galarazten dien hainbat ekintza ase ditzakegula.

Gure helburua bide hartuz, kolektibo honen ezaugarriak zehazten hasi ginen. Pertsona hauek, noski, gurpildun aukia izan behar dute. Gehiago zehazteko, sendaezinak diren lesioak dituzten horiek izango dira gure bezero. Hau da, paraplejia edo tetraplejia pairatzen dutenak.



Euskal elbarrietan zentratuko da gure enpresa. Baina ez dugu enpresaren hedapena mugatu nahi, hau da, irekita gaude gure enpresa etorkizunean nazionalizatzera.

Elbarriek Euskal Herrian, laguntza ekonomikoa izaten dute. Gipuzkoan, Diputazioaren kargu dago guztia eta Bizakaian eta Araban berriz, Diputazioaren, Osakidetzaren eta elbarriaren atean osatzen da aulkiak eskuratzeko behar den guztia.